

PRENTSA-OHARRA

Zayerrek eta Teknikerrek elkarrekin makina-erremintan egindako apustua berritu dute

- *1994. Urtetik hainbat proiektutan aritu dira elkarrekin lanean, eta duela gutxi hitzarmen berria sinatu dute makina-erremintan I+G+B-ren aldeko apustua berritzeko*
- *Hitzarmenaren helburua da ingurune erreal bat izatea I+G-ko garapenetan lan egiteko eta teknologiaren heldutasun-maila handiagoetara heltzeko, horrek produktuen time-to-market nabarmen murriztuko luke eta*

[[Eibar, 2020ko irailak 24](#)] – COVID-19aren pandemiak ziurgabetasun sentsazioa handitu duen arren, ekonomiak eta, oro har, gizarteak aurrera egiten jarraitzen dute industria-ehunaren sendotasunari esker, bai eta sektoreko enpresen eta zentro teknologikoen arteko lankidetzari ere. Testuinguru horretan, Zayerrek, makina-erremintaren sektoreko erreferenteetako bat, eta Basque Research and Technology Alliance (BRTA) partzuergoko kide den Tekniker zentro teknologikoak beren lankidetzari berritu dute zentro teknologikoaren Eibarko instalazioetan, elkarrekin makina-erremintan I+G+B sustatzen jarraitzeko eta industriaren ekonomia suspertzen laguntzeko.

Lankidetzari hau 1994an abiarazi zen, elkarrekin bideratutako lehen proiektuarekin, eta harrezkero hainbat mugarriren bidez sendotu da. 2014 urte erabakigarria izan zen, Zayer zentro teknologikoaren erakunde kolaboratzaile bilakatu baitzen, eta horrek nabarmen erraztu baitu I+G-ko estrategien eta jardueren koordinazioa. Hala, emaitzak maximizatu dira eta harreman egonkor eta emankorra finkatu da.

Illo horretatik, duela gutxi lankidetzari eta lagapen-hitzarmen berria sinatu zuten goi-mailako errendimenduko Arion G makinari lotuta, BIEMH 2018 berrikuntza saria irabazi zuena. Funtzio anitzeko mekanizazio-zentroa da, konektatuta dagoena, moldakorra, zehatza eta mantentzeko erraza.

Gaurko ekitaldian zehar, gainera, Zayerrek eta Teknikerrek elkarrekin bideratzen ari diren proiektuak eman dituzte ezagutzera, eta horietarako erabakigarria izango da Arion G makinaren lagapena, izan ere, ingurune errealetan lan egitea eta azkar merkatura eraman daitezkeen emaitzak lortzea ahalbidetzen du. Zentzu horretan, Zayer-eko zuzendari nagusi Iñigo Pérez Lópezek begi onez ikusten du bi erakundeen arteko lankidetzak, izan ere, zera esan du: “aukeratutako ereduari esker, eta proiektuetan Zayer-ek Tekniker-i lagatuko makina erabiliz, merkatuan dauden beharretatik oso hurbil dauden soluzioak gara daitezke, jarraipen hobearekin eta denon parte-hartzearekin”.

Lankidetzaren egonkorra

Normalean, Zayerrek eta Teknikerrek diseinuaren egiaztapenarekin lotutako alorretan aritzen dira elkarlanean; egiaztapen hori elementu finituen bidezko analisi eta analisi esperimentalen bidez lantzen da. Arion G makinari esker, Teknikerren instalazioetan proiektu berriak jarri ahal izango dira martxan, eta horrek Zayerrentzat merkatu zabalagoa sortzeaz gain, Teknikerrek emandako teknologiaren heldutasun-maila handitzen lagunduko du; hala, produktuen *time-to-market* murriztuko da. Zentzu horretan, bi enpresen helburua da nazioarte mailan produktu berritzaile eta lehiakorrak lortzea, euskal industria lehen lerroan kokatzeko.

Zayerrek lagatuko makina konektatu eta adimendun hau bi enpresak elkarrekin bideratzen ari diren proiektu batean erabiliko da, CDTIk finantzatutakoa eta 2021ean amaituko dena. Proiektuaren helburu nagusiak honako hauek dira: prozesu anitzeko gaitasun berriak garatzea, makina bakarrean hainbat eragiketa egin ahal izateko; kalitatea bermatzea, prozesuaren bibrazioak saihestuz; eta eskuragarritasuna handitzea, makinaren benetako egoera ondo ezagututa. Hau da, 4.0 mantentzean eta produktuen kalitatean aurrera egiteko ezinbestekoak diren helburuak.

Proiektu hau duela gutxi amaitu zen beste bati lotuta dago, non bi enpresak elkarlanean aritu ziren. Kasu horretan, makinaren zehaztasuna hobetzea izan zen helburua, laser askoz zehurrago batez lagundutako muntaketan oinarrituta. Horretarako, proiektu honetan neurketa eta kontrol tresna guztiz berritzaileak erabili dira. Zentzu horretan, laser bidez lagundutako muntaketarekin, muntaketa-prozesua askoz azkarragoa eta zehatzagoa da. Teknikerrek laser bidezko prozesuetan eta metrologian duen espezializazioa giltza izan da zehaztasunaren helburua betetzeko.

Zayeri buruz

Zayer makina-erremintaren arloko enpresa da, teknologia aurreratua eta 70 urtetik gorako esperientzia duena fresatzeko makinan eta tamaina handiko mekanizazio-zentroyen garapenean. Hala, bere jarrera ekintzailearen eta gaitasun berritzailearen alderik onena eskaintzen die bezerori. 2014tik Teknikerren erakunde kolaboratzailea da.

Teknikeri buruz

Teknikerrek 40 urte inguruko esperientzia du teknologia aplikatuaren ikerkuntzan eta hura enpresetara transferitzen, eta, denbora horren ostean, espezializazio-maila altua eskuratu du lau arlo handitan (Fabrikazio Aurreratuan, Gainazalen Ingeniaritzan, Produktu-ingeniaritzan eta IKTetan), eta horrek abangoardiako teknologia hori bezeroen premien zerbitzura jartzea ahalbidetzen dio. Zentro teknologikoa Basque Research and Technology Alliance (BRTA) partzuergo zientifiko-teknologikoko kidea da.

Informazio gehiago:

GUK ► Eider Lazkano

eider@guk.es | Tel. 620 807 344